

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdialdea-ekialdea

DATA: 2024/11/12

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Bizilagun batek dio ez dela seguru sentitzen: urriaren 31n Udaltzaingora deitu zuen ate joka ari zitzaizkiola esanez, eta argazkirik ez ateratzeko esan zioten, adingabekoak zirelako. Espaloitik ibiltzen diren patineteengatik ere kexu da.	Hitz egin da udaltzainekin, kontu handiagoz jokatu dezaten. Berriz ez gertatzea espero dugu. Patinete elektrikoei dagokienez, kontrolak egin eta isunak jartzen dira.
Obrak	Bizilagun berak soluzioak eskatzen ditu bukatzeko dauden obretarako: Bittor Sarasketa eta Arragueta	Arragueta berrurbanizazioa lizitazioan dago, eta laster hasiko dira obrak. Bittor Sarasketaren kasuan, eskumena ez da Udalarena, Eusko Jaurlaritzarena baizik.
Zerbitzuak	Bidebarrieta 26ko bizilagun batek eskatzen du eraikinaren atzealdean dauden belarrak ken daitezela.	Eginda.
Zerbitzuak	Bizilagun baten iritziz, Jardiñetara doazen eskailera mekanikoak sarri hondatzen dira. Aldatzera igotzen den igogailuarekin ere azkenaldian gauza bera gertatzen dela dio.	Arazo guztien jatorria ekintza bandalikoak dira.
Hirigintza	Bizilagun batek planteatzen du Jardiñetara igotzen diren 4 eskailera mekanikoak kentzea igogailuak jartzeko.	Badago aukera Jardiñetara Correoseko igogailutik igotzeko. Ez dago aurreikusita eskaileren ordez igogailua jartzea.
Zerbitzuak	Auzoko batek dio Aldatze 3. eta 4.ean urteetan moztu bariko sastrakak daudela.	Euskotreneira errekerimendua bidali zen belar-sastrakak ken zitzaten Electrociclosetik Aldatzeko 3. eta 4. zenbakietara, Barakaldoko 19. lorategitik eta atzealdetik, hau da, jarduketa integral bat eskatu zen arazo horiek guztiak batera konpontzeko.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdialdea-ekialdea

DATA: 2024/11/12

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Auzokide batek dio saihesbidetik Jardiñetara sartzen diren ibilgailuak azkarregi joaten direla. 6. zk.ko edukiontzien parean azkarregi pasatzen dira.	Udaltzaingoa ari da arazo hau kontrolatzen. behin baino gehiagotan jarri dira isunak azkarregi ibiltzeagatik.
Udaltzaingoa	24ko bizilagun batek, aurreko kexarekin lotuta, esaten du 22an (igogailurako desbideratze bat egin da espaloian) banatzaileek aparkatzen dutela askotan.	Piboteak jartzeko aukera aztertzen ari dira. Dena dela, kezkagarria da zenbait gidariren ohitura txarrengatik Udalak Eibar guztian piboteak jarri behar izatea. Isunak jartzen zaizkie ibilgailuei arrazoi horrengatik.
Zerbitzuak	Auzoko batek eskatzen du Txomoko garajeetan marra hori bat pintatzeko. Era berean, Jatako garajeen sarreran zebra-bidea jartzeko eskatzen du.	Egiteko dago, urtea amaitu aurretik egingo da. Lehentasuna eman zaie Trafiko Batzordeko beste eskaera batzuei.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek dio ea atera dakioken argazkirik txakurren kakak jasotzen ez dituen jendeari.	Bai. Atera daitezke argazkiak. Salaketa, gainera, guztiz anonimoa izan daiteke.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek dio Jardiñeta kaleko goialdean dagoen aparkalekuan ez dagoela irisgarritasun onik eta errepidetik jaitsi behar dela, eta egoera horrek inbutu bat eragiten duela auto eta oinezkoen artean. Halaber, esan du ea seinale handiago bat jar daitekeen sarreran abiaduraren gainean.	Aparkalekua handitu berri da, irisgarritasuna hobetu da eta ingurunea deskongestionatu da. Ez dakigu egoera horrek bere horretan jarraitzen duen, baina kontrolak egiten dira. Seinaleari dagokionez, momentuz ez dugu beharrezkoa ikusten. Ezin dugu Eibar seinalez eta pibotez bete. Gehiegikeria hauek kontrolatzen saiatzen gara.
Zerbitzuak	Pertsona berak dio Jardiñetako parkinean ez dagoela argirik.	Lan-agindua eman zen aparkalekuko luminariak eta argiak, oro har, berrikusteko eta konpontzeko. Ondoren, arazoa

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdialdea-ekialdea

DATA: 2024/11/12

Saila	Laburpena	
		konpondu ahal izateko obra zibil bat egin behar zela ikusi zen, kanalizazioarekin.
Udaltzaingoa	Emakume batek dio Jardiñeta txakurren paradisua dela, eta txakurkakaz beteta dagoela. Galdetzen du ea txakurrak lotuta ibili behar diren.	Printzipioz, ez da beharrezkoa txakurra lotuta eramatea, baina kontrolatu egin behar da. Arraza arriskutsukoa bada bai, lotuta eraman behar da. Udaltzaingotik kontrolak egiten saiatzen gara, eta oso zorrotz jokatuko dugu gai honekin.
Zerbitzuak	Auzokide batek dio Jardiñeta 6 zenbakiaren parean, institutuarekin mugan, lorategi/ oihan bat dagoela. Lorategi izan dadin diru pixka bat inbertitzea eskatzen du. Bestalde, inguru horretako zaborren aldeak zabortege bat ematen duela dio.	Lursail pribatua da. Zaborren eremutik, eremua kontrolatzen saiatzen gara, hondakindegia bihurtu ez dadin. Arazoa gizalegearen kontrako jendearengan dago.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatzen du Errebal hobeto garbitzeko eskobatzeko makina batekin. Blas Etxeberria ere gehiagotan garbitzeko eskatu da.	Mankomunitateari kexaren berri eman zaio, irtenbidea eman diezaion. MANKOMUNITATEAREN ERANTZUNA: Errebaleko barrualdea egunero garbitzen da, astelehenetik igandera, eskobatzeko makinarekin. Kanpoaldea ere horrela garbitzen da. Asteazkenetan espaloi-garbigailuarekin ureztatzen dugu. Blas Etxeberria: eskuz 6/7 egunetan garbitzen da. Asteazkenetan: Espaloi-garbigailuarekin. Igandeetan: urarekin ere garbitzen da bizilagunen erkidegoak hala eskatuta, baina kexak egoten dira zarata dela-eta. Lehen orduan garbi utzi nahi dugu, bestela, geroago joaten bagara, kexak daude... Ingurua gehiago zaintzea ere eskatu genuen, kale-zurruta egiten delako bertan.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdialdea-ekialdea

DATA: 2024/11/12

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Auzokide batek eskerrak ematen ditu Blas Etxeberriako obregatik, eta pozik dagoela esaten du. Ea jardinera gehiago jar daitekeen galdetzen du, baita argi gehiago ere.	Ingurua berrurbanizatu ondoren, kale-argi bat gehiago jarri zen; ez da beharrezkoa ikusten besterik jartzea.
Hirigintza	Auzokide berak galdetzen du ea Matxaria aldea hobetzeko asmorik dagoen Udalean.	2026-27-28 urteetan zehar, Matsariako poligonoko oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko proiektu bat gauzatuko da, Matsariako behealdetik (Urkizutik gertuen dagoena) poligonoko biribilguneraino doan oinezkoentzako pasabide bat sortzeko. Horrela, enpresek eta jarduerak egiten dituzten hobekuntza-eskaerei erantzungo zaie.
Hirigintza	Ea Matxarian Estaziñora bidean mugikortasun murriztua dutenentzako hobekuntzarik egiteko asmorik dagoen.	Ez dago aurreikusita hori aldatzea pasealekuaren obrekin.
Zerbitzuak	Errebaleko -2 solairuan jendeak botaka eta txiza egiten omen du, eta garajeetan sartzen dira. Soluzio bat eskatzen du.	-2 solairuko garajeen sarrera sektorizatzea aztertzen ari da.
Hirigintza	Bizilagun batek eskatzen du Udalak Arraguetako orubean parking bat egitea baloratzea edo azterlan bat egitea horretarako.	Lursaila pribatua da. Udalak eskatu egin zien jabeai orube hori lagatzea erabilera publikoa emateko. Ez zen baiezkorik jaso.
Zerbitzuak	Auzoko batek dioenez, Blas Etxeberriako obraz geroztik, horman tentsio altuko kable bat dago. Era berean, galdetzen du ea lokalek zergatik ordaindu behar duten etxebizitzek baino gehiago.	Lan Agindua egin zen (395/2025), elektrizistek kontua gainbegiratu dezaten eta egoeraren berri eman diezaguten, irtenbidea topatu ahal izateko. Ikuskaritza egin ondoren,

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdialdea-ekialdea

DATA: 2024/11/12

Saila	Laburpena	
Obrak	Bizilagun batek dio obrak egiten direnean, kalitate-pleguren bat egiten dela. Dioenez, tarte bakoitzak material bat dauka, desberdina. Obretan adabaki asko daudela dio.	ikusi zen klabea Iberdrolarena zela. Hala ere, hainbat aldiz erreklamatu ondoren (10/09) kenduta dago dagoeneko. Horrelakorik ez gertatzeko, irizpideak batzeko lanean ari gara.
Zerbitzuak	Auzokide batek alkatearen alde egiten du, eta esaten du, kaleak zikin badaude, herritarren erruagatik dela.	Hori horrela da.
Hirigintza	La Guipuzcoanako gidari bat kexu da Eibarren kale estuak egoteak arazoak dakartzala autobusarekin mugitzeko orduan.	Ba, badakigu zer-nolako zailtasunak dauden. Halako orografia daukagu. Arraguetako berrurbanizazioarekin egoera hobetzea lortuko da eta Hijos de Gabilondorekin ere bai.
Zerbitzuak	SPAren mantenuaz kexu da erabiltzaile bat. Txakur-kakak jasotzea dela-eta, galdetzen du ea badagoen asmorik zaintza-kamerak jartzeko.	2025ean zehar SPAn hainbat mantentze-lan egin dira, behar bezala lagatzeko. Ordutik ez dugu kexarik jaso. Bigarren galderari dagokionez, datozen egunetan trafiko-kamerak instalatzen hasiko gara, lagungarri izango zaizkigunak.